

2025. URTEKO JARDUERA PLANA
I. Aurreikusitako jarduerak
1. Jarduera

A. Identifikazioa

Jardueraren izena	Industria inbertitzailearen kultura sustatzea, tokiko enpresa sarea garatzeko palanka gisa, hezkuntza eta ikerketa jarduerak garatuz eta babestuz, bai eta ezagutza zabaltzea ere, hitzaldi, mintegi eta argitalpenen bidez.
Jarduera mota	Berezkoa
Jardueraren identifikazioa, sektorea	Arrisku-kapitala
Jarduera garatzeko lekua	Euskal Herria

Egin beharreko jardueraren deskribapen zehatza

Zehazki, 2025ean egitea aurreikusten diren jarduera nagusien artean hauek nabarmentzen dira:

- Campus "Fundazioa": prestakuntza saioak, gazteei egokitutako metodologia batekin (16-23 urte), enpresa eta finantza munduan sartzeko. Lurraldeko unibertsitateen, batxilergoko ikastetxeen eta lanbide-heziketako zentron laguntza izatea espero dugu. 4 saio aurreikusten dira, batez beste 50 parte-hartzaile saio bakoitzeko.
- Hezkuntzak eta Enpresak bat egiten duten Nazioarteko III. Jardunaldia: helburua da "Euskadik talentua erakartzeko duen erakargarritasuna hobetzea, hezkuntzak eta enpresak elkarrekin egindako lanarekin".
- ETEentzako jardunaldiak, finantzaketa alternatiboari buruzkoak: 4 jardunaldi finantza-erakunde pribatuetatik datozen finantzaketa-iturri berriei buruz, bankuetatik independenteak. Zer eskaintzen du arrisku-kapitalak?
- BasqueFIK Euskadiko Finantza eta Inbertitsio Klusterrari laguntzea.
- DO TANK: Gune interaktiboak enpresekin, adituekin eta langileekin, gai garrantzitsuak lantzeko.
- ERALDATU Inpaktuzko Ekosistema: Talde honen helburua da eragin soziala duen ekintzailtza bultzatzea, proiektu asmodunak bilatzen dituzten gazteei eta enpresei lagunduz, inpaktu sozial positiboa sortzeko erronkan.
- Lankidetzak DBSrekin – Executive Enpresen Balorazioa eta fusio eta erosketak Programa.
- Gipuzkoan Nazioarteko Ikastetxe bat ezartzeko azterketa.
- Bikaintasuna bultzatzea (sariak eta hitzaldi-zikloak).
- Laguntza eta lankidetzak BerriUpekin, hainbat ekimenetan.
- Dibulgazioko beste jarduerak batzuk, enpresa-elkarteetara eta administrazio publikoetara hurbilduz, besteak beste, "inbertsio-industria" eta enpresa-ekintzailtza sustatzeko.

2025. URTEKO JARDUERA PLANA
2. Jarduera

A. Identifikazioa

Jardueraren izena	Bekak eta laguntzak ematea
Jarduera mota	Berezkoa
Jardueraren identifikazioa, sektorea	Arrisku-kapitala
Jarduera garatzeko lekua	Euskal Herria

Egin beharreko jardueraren deskribapen zehatza

Jarduera horren barruan, batez ere, honako ekimen hauek sartzen dira:

- Fusio eta erosketak eta Private Equityn espezializazio-ikastaroak egiteko 10 eta 15 beka bitartean ematea.
- Aliantza estrategikoak: lankidetzeta-hitzarmena fundazio, unibertsitate, elkarte eta erakundeekin, gizartearen eta enpresen aurrerabidean eta gazteen talentuaren sustapenean laguntzeko.
- Genero Berdintasunaren II. Rankinga.
- Emakumeen elkarteei laguntza ematea, Lurraldeko enpresetako administrazio-kontseiluetan emakume gehiago kokatzeko prozesuan, prestakuntza-ekintzak barne

3. Jarduera

A. Identifikazioa

Jardueraren izena	Inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzailearen eta "Fondo de Fundaciones" funtsaren jarduerari laguntzea, beraien eragin eremuen garapen jasangarrian lagun dezaten
Jarduera mota	Berezkoa
Jardueraren identifikazioa, sektorea	Arrisku-kapitala
Jarduera garatzeko lekua	Euskal Herria

2025. URTEKO JARDUERA PLANA

Egin beharreko jardueraren deskribapen zehatza

Jarduera horren barruan, batez ere, honako ekimen hauek sartzen dira:

- Inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzailearen jarduerari laguntzea, bere jardueretan errentagarritasuna kontuan hartzeaz gain ingurumen-, gizarte- eta gobernu korporatibo onaren (ESG) irizpideak ere kontuan hartzen dituen inbertsio estilo bati laguntzea sustatuz, lurraldearen garapen jasangarrian laguntzeko helburuarekin.
- Inpaktu Fundazioen Funtsaren jarduerari laguntzea. Ekimen horren helburua irabazi-asmorik gabeko erakundeak suspertzea da, beren kapitalaren edo aurrekontuen zati bat venture philanthropy eta inpaktu-inbertsioaren bidez inpaktu handiko proiektuak indartzeko erabil dezaten.